

Goi

Goierritarra aldizkaria
372. zenbakia 2009ko abenduak 17



**DAR-DAR
PRODUKZIOAK**



Harrobiaren fruituak

faktore
URTEBERRI ON

Nortasun marka

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

www.faktore.net





Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Ornarburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
 ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

ausoegi
barne berrikuntzak

bainuak
tximiniak
zeramikak
sukaldeak
diseinuak
projektuak

Urdaneta kalea, 41 ORDIZIA
 tel.-faxa: 943 889 576
 www.ausoegi.com

Erakusketa berria!

Berogailu dotoreak kolore eta akabera ezberdinekin




**APROBETXATU
 PROMOZIO BEREZIA
 ORAIN!**



Orain beheko suetan erakusketa berria :

Biomasa EVE planarekin
 Bertan 40 aparatua baino gehiago ikusteko aukera
 (zurezkoak, gasezkoak, pelletezkoak)
 Beheko suak neurritan eta bertan diseinatuak

Sukalde eta bainu gelatan adituak



**Zeramikan
 azken
 diseinuak**

**Bainugelatan
 aukera
 zabala**





Etor Mendia

Aldizkari baten ta jendei sermoiak botatzen, zeñek esango zian hoi Gasteizko urte ear haietan, geroak iñungo kezkaik eraitten etziuanean. Fakultadera jun ta launarten ear ki pasatzen genian, gure ikasgai praktikoetan batipat, ostegunetan "jarduera sozialak"... Ta azkenen ikasketei etekiña ata ta hortik bizi!

Jon Arretxe gelakide izan nian 5 urtetan ta pixukidereba i urte pare baten, baño gurea Eugenia-Enea zuan hi! Ta nik uste jaguarrak ittuala Jonen hortzetatik alde itten zienak! Ordun neire beti korrikan aitzea tokatzen zitzaian ta makiña bat aldiz pasatakoa neok lehendakariaren egoitzaurretik, hango inkilinoare aldatuz jun dek orduzkerotik, ta ez oneako euskaldun izan ta bizi nahi diaunantz! Ta beittuzak nola dittuken gauzak, ni lehorrekoa izanda ta ude eateko bakarrik ibiltzetik, Jon Arretxeren sarean eroi, ta nola jakinbe han hasi nitzean baten bizikletan ta besten igerian, ta konturatzeako duatloi bat in ta hurrena zer ta Zarauzko triatloia.

Ni lehorrekoa izanda ta ude eateko bakarrik ibiltzetik, nola jakinbe han hasi nitzean baten bizikletan ta besten igerian.

Arrazoi dek, oaiñ talden errapa aldatzekotan gabiltzak, ia zeozer dotorea itten diaun... Nahiko nitek! Baño Zakilixuten maillota zaila ikusten diat, kirol pijo antzekoa bait dek ta bestelako marka ta diseñuak zeudek modan. Hi, baño earra izango huke gure "estilo propioa" izatea, eztek?

Urtezaharra, Aizkorrira hamaiketako ear batekin juteare eztek txarra. Hori itteikenare eztek bakarrik izango mendin. Dana dalare ezer itteztikenak nahi eztikelako, aukerak bazerek ta. Nik, okerrik ezen, parte ingo dit eunen zehar, arte haundikin, ta jendekin kirola iñ, ta ez jenden kontra.



Igor Bueno

Nik-e Gasteizen ikasi nian-ba, ta harrezkeoztik oaiñ hau ta geo hua, batea ta bestea ibiltzea tokau etzaiak-pa! Hi, biño apenas kointziditu genian Gasteizen, eo? Txoin zak! Ouain akordatzenekela, behin kointziditu genian bai! Ajuria-Enean izan zuan, Jon Arretxe abenturazale-bidaiari-idazlearen filmina emanaldi baten. Ze esaten zian hark itten ziala Amazonasen jaguar-piztiak bea jan ez zezaten? Nola lortzen zian alde ittea?

Aittu diat triatloikok Zakilixutek ibiltzeiken maillota bea jantzi behar ditekela datorren urten

Horra! Joko zikiña, tranpa ta gezurra, lendakari exkaxal Ni beiz fuolen ibiltzen nitzean-ba, Maradona deitzen zidatean, ta triatloia aipatu dekela, hortan-e behin eo beste kointziditu diau, ta akordatzen neoken bakoitzen, ene, hoik abenturak!

Hi Etor, zurrumuru bat-e argittu behar didak. Aittu diat triatloikok Zakilixutek ibiltzeiken maillota bea jantzi behar ditekela datorren urten, urdiña marra txuriakin, hoixe bea dotore-askoa. Dala udetan, dala biziketean, dala korrika, dijoztela batea, geo bestea, mendin goitik datoztela, behe-ra herria iristeziala, kolore hoikin ezautuko al dizkiu triatloikok?

Bo, hi, hilan 31an San Silbestre lasterketak dittuk ta aittu diatenez Maritxuk Legorretan in-beharmendik korrika, lasai-lasai, motzen, goizen. Estitxuk Beasainen, luzen, ahaleñen, marka jarriz, eguerdin. Ta Mirentxuk Zaldibin, patxadan, herritarren arten, atsalde parten. Ta horrekin nahikoa ez ta geo hiruak elkarrekin in-beharmenduela korrika Ordizin, iluntzen.

Etor, ta hik 31an ze? Arte, parte, ala aparte?!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia



HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzinoa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201
Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazinoa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu
ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Herri honen erabaki nagusiak eta etorkizunaren zutabeak ezin dira onartu, une batetik bestera aldakorra den gehiengo eskaxarekin. Saiatu beharrean gaude, gehiengo zabalagoak lortzen.



Xabier Iraola Agirrezabala

Ezberdinen arteko adostasuna

Azken hauteskundeen ondoren, EAJ irabazle atera arren, PSOE eta PP arteko akordioari esker, Lehendakaritza López jaunaren eskutan ikusteak sekulako eztanda sortu zuren nere barnean.

Hainbeste urteetan agintean izateak botere gaiak gain ohitura mental jakin batzuk sortzen ditu eta botereaz kanpo geratzek, aginteak ematen duen itzalaz gain, Jaurlearitziatik at geratzek, astindu mentala ikaragarria suposatu zuen.

Asteak eta hilabeteak pasatu dira eta nire inguruko batzuk ez bezala, oso lasai aurkitzen naiz, boterean eta botere ingururik kanpo izateak ematen duen askatasunaz gozatuz baina aldi berean, oso kezkatuta Jaurlearitza berriaren ikusten dudarekin.

Lehen asteak igarotakoan López jaunaren ekimenean hainbestetan defendatu dudana transbersalismoaren emaitzak ikusi nahi izan nituen baina, egia esanda, ezinezkoa gertatu zait zeharo kontrako erabakiak hartzen ari baitira.

Ez naiz hain inozoa, neuk defendatzen dudana transbersalismoa (hitza benetan itsusia aukeratu duguna) eta beste batzuk defendatzen dutena gauza berbera dela sinesteko, oso argi baitut, niretzako, herri honetako politikako zutabe edo ildo historikoen arteko elkarbizitza den transbersalismoa, beste batzuentzat aldiz, Jaurlearitza edo hobeto esanda, boterera iristeko ipini beharreko mozorroa zela.

Ikusi besterik ez dago, boterean izan ahala egindakoak (euskararen aurkako erabakiak, ikurrina, estatutuaren jaia, festetako argazkiak, ETBkoak, etb.) eta honenbestez, aitortu beharrean nago, boterera iristeko transbersalismo hitzaz baliatu direnak sekulako kaltea egin diela kontzeptu berari, edo hobeki esanda, transbersalismo hitza hutsari, argi geratu baita hitzaren atzean kontzeptu ezberdinak babestu ari zirela.

Neure ustean (hala jaso nuen Josu Jon Imazek bere agurra iragarri zuen bezperan) transbersalismoaren hitza defendatze-

an, herri honetan daude politikako ildo nagusien arteko elkarbizitza defendatzen ari naiz eta ildo nagusiak aipatzean, 4 ildo azpimarratu nahi nituzke: abertzaletasun demokratikoa, ezker abertzalea, sozialismoa eta zentro-eskuin espainiarra.

Jakin badakit lau ildoen arteko erabateko adostasuna lortzea ia ezinezkoa dela baina aldi berean, oso argi dut, herri honetan eman behar diren urrats nagusiak, ezberdinen arteko adostasunean oinarrituak izan behar dutela eta ulertezina bezain onartezinak direla, ozta-oztako gehiengo puntual batez onarturiko erabakiak, abertzaleok ala espainiarzaleak hartuak izan.

Herri honen egungo erabaki nagusiak eta etorkizunaren zutabeak ezin dira onartu, une batetik bestera aldakorra den gehiengo eskaxarekin eta erabakiak akordio nagusietan oinarrituz hartzea zailagoa bada ere, saiatu beharrean gaude, gehiengo zabalagoak lortzen, hartutako akordioaren iraunkortasunerako soilik bada ere.

Hori bai, saiatu beharrean gaudela esaten dudanean ez naiz abertzaleaz soilik ari, euskaldun guztiez baizik. Aurrez esan dudana bezala, oso argi geratu baitzait, hitzetik hortzera transbersalismoa eta ezberdinen arteko adostuna zutenek, boterera iristean zeharo aurkakoa dihardutela, gehiengo eskaxa eta alde bakarrekoteko botuekin euskal gizarte osoa aztoratzen.

Beraz, hemendik aurrera, patxadaz eta lasaitasunez baina inongo konplexu edo lotsarik gabe, transbersalismoa, edo hobeto esanda, benetako transbersalismoa defendatzen dugunok hitzaren atzean gordetzen den kontzeptua argitzen, lantzen eta sakontzen jarraitu beharko dugu, ezberdinen arteko adostasunean baitago euskal gizartearen irtenbidea eta ez, batzuk sinesten duten aurkariaren kanporaketan edota besteek lantzen ari diren antzekoen metaketan.



mazda

☎ 943 889 296
 Faxa: 943 887 952
 N-1 errep. 419 Kma
 BEASAIN

Bikar, S. A.



Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
 barne diseinua
 dekorazioa

Garai berrietarako
 ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
 Tel.: 943 16 40 40
 BEASAIN



LASER TERAPIA UNITATEA

ZAINEN LASER TERAPIA



Laser sistemari esker, aurpegi eta zangoetako zain ezatseginak kendu daitezke.

LASER DEPILAZIOA



Gorputzeko eta aurpegiko ile antiestetikoak desagerrarazi ditzazkezu, udan eta azal beltzaranarekin ere bai.

LASER GENESIA



Gasze itxura berreskuratzen laguntzen duen tratamendua, zahatzearen aztarnak ezabatuz: poro irekiak, textura irregularra eta zimur txikiak.



LEHENENGO KONTSULTA DOAN

**MEDIKU KOLEGIATUEK
EGINDAKO TRATAMENDUAK**

**EZ EGON ZAIN!
INFORMA ZAITEZ!**

MEDIKU KOADROA

FAMILIAKO MEDIKUNTZA <ul style="list-style-type: none"> ● Natasa Vujic Dr. ● Mikel Ansa Dr. ● Jorge Sampederro Dr. 	PSIKOLOGIA <ul style="list-style-type: none"> ● Montse Corghete 	ERREHABILITAZIOA <ul style="list-style-type: none"> ● Vanessa Bahon Dr. ● Laida Artola Dr.
DIETETIKA ETA NUTRIZIOA <ul style="list-style-type: none"> ● Cristina Perez 	UROLOGIA <ul style="list-style-type: none"> ● Dámaso Sanchez Dr. 	PODOLOGIA <ul style="list-style-type: none"> ● Ioana Arbillaga
ALERKOLOGIA <ul style="list-style-type: none"> ● Maria Mar Del Castillo Dr. 	GINEKOLOGIA <ul style="list-style-type: none"> ● Irune Alzola Dr. ● Emilio San Pedro Dr. 	FISIOTERAPEUTAK <ul style="list-style-type: none"> ● Eider Iturrospe ● Ainhoa Cupido
DERMATOLOGIA <ul style="list-style-type: none"> ● Conchi Tamayo Dr. 	ORL (sudur, eztarri, belarri) <ul style="list-style-type: none"> ● Luis Mutio Dr. 	ERIZANTZAN DIPL. (ATS) <ul style="list-style-type: none"> ● Marivi Beriain ● Arantzasu Balerdi
ODOL eta PIXA ANALISIAK HORTZETAKO ERRADIOGRAFIK ERRADIOGRAFIA OROKORRAK	PSIKIATRIA <ul style="list-style-type: none"> ● Lourdes Del Campo Dr. 	KIRURGIA OROKORRA <ul style="list-style-type: none"> ● Juan Kerejeta Dr.
EKOGRAFIK (3D eta 4D) MAMOGRAFIK	ENPRESEN AZTERKETA MEDIKUAK	GIDATZEKO ETA ARMENTZAKO AZTERKETA MEDIKUAK

JAKIN BEHARREKOAK

Familia arruntak urtean tona bat zabor botatzen du, hauetatik 150 Kgr edukiontziak direlarik (plastiko, metal eta tetrabrik) zure erosketak egiterakoan kontutan izan produktua- ren edukiontzia beharrezkoa den ala ez.

Tona bat paper berziklatu erabiltzeak 14 zuhaitzen mozketari saihesten du. Honez gain, 300 litro petroleo eta 50.000 litro ur aurrezten ditu.

Papera 7 aldiz berziklatu daiteke eta beira 50 aldiz.


Itsasbelarra desagertzeko arriskuan. Itsaszelaiaren laurdenak galdu dira azken 130 urteetan eta beherakada geroz eta handiagoa da. Munduko ekosistema mehatxatuenetarikoa da, mangladiarrak, koral arrezife eta oihan tropikalekin batera.

Plecotus macrobullaris espezieko saguxarra topatu dute Catalunya. Espezie urria da, Alpeetan eta erdialdeko Pirineotako gune batzuetan bakarrik aipatua. 2.100 metrotan kokaturiko haitzuloetan pasatzen du negua. Ripolleseko espezie inbentarioa egiten ari diren ikerketaren barruan aurkitu dute saguxarra. Lan honen bidez habitaten eza- gutza osatu eta babes neurriak hartu nahi dituzte. Catalunya 29 saguxar espezie aurkitu dituzte. Plecotus macrobullaris bioindikatzailerik onena da.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aipatu edo albistean bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Unibertsoa



Era berean, abenduaren 21ean neguko solstizioa izango da. (13 eta 21 artean gaurik luzeenak dira). Hemendik aurrera hasten da eguna luzatzen eta gaua mozten.

Astronomiaren urte propa- gandistikoari amaiera ematen ari zaio, baina, astronomia maitatu eta gozaten dugunok gogorarazi nahi dizugu, zerua, izarrak, planetak, ilar- giak, galaxiak eta abarrek hortxe jarraitzen dutela "beti- rako". Ikuskizun zoragarriak eskeitzen, eta sekretu anitzak gordetzen.

Hasteko, esan behar dugu abenduan nahiz eta laino asko izan, egun garbi batean, Geminidas izarren euria ikusi daitekeela. Bere maximoa, hau da, gehien ikusiko den eguna abenduak 13n izango da (Santa Lutzin eguna). Urte osoko izar ihes- kor hoberena dela, adituak diote. 100 meteorito orduko, kolore desberdinekin, txu- riak, urdinak, gorriak,...

Era berean, abenduaren 21ean neguko solstizioa izan- go da. (13 eta 21 artean gau- rik luzeenak dira). Hemendik aurrera hasten da eguna luzatzen eta gaua mozten.

Abenduaren 31n berriz, ilar- giaren eklipse partziala izango dugu. Europan, Asian eta Afrikan ikusiko dena. Honela urtea agurtuko dugu.

Hau ikusi eta gero Unibertsoa zer den esplika- tzea ekingo diogu: Unibertsoa imajina dezake- gun espazio-bolumenik han- diena da, eta barnean dago- en materia eta ezmateri- ez osatuta dago. Azterketa zien- tifikoei ikus daitekeen Unibertsoa hartzen dute kon- tuan soilik, baina beste uni- bertso batzuk ere egon dai- tezke, ikusten ez ditugunak, baina bai bera grabitate inda- rra sentitu daitekeena. Gerta liteke honek mugarik ez izate.

Astronomoek ikerketa sakonak egin ondoren, bat datozte, Unibertsoaren jato- rria, Big-Bang leherketa izu- garri ostean sortu zela esate- ko. Duela 17.000 milioi urte, unibertsoan materia eta ener- gia guztia puntu batean kon-

primituta zegoen (arrautza kosmikoa izenez ezagutu- tua). Arrautz hori lehertu zen, ezineskoa zelako hainbeste energia, presio eta temperatu- ra handi haiek jasatea. Eta zati horietatik, Quasarak, ato- moak, molekulak, izarrak, planetak, galaxiak eta bitzta sortu ziren. Unibertso zikliko edo oszilatzaileraren teoriak dioenez, hedatze prozesu baten ondoren, konzentratze fase bat datorkio eta honela behin eta berriz.

Amaitzeko gogoratu nahi dizuet irakurleei gure herrie- tan eta hirietan geroz eta zai- lago da izarrak ikustea, argi kutsaduragatik. Argiak edo farola egokiak jartzen baditu- gu, kontsumo gutxikoak eta behar dena argizatzen badu- gu, denon artean herri eta hiri hobekoak lortuko ditu- gu.

Ondo izan, urtea ondo bukatu eta hobeto hasi.

Maribel Zufiaur Ormazabal

B I P

Beasaingo Ikastetxe Publikoak



Alkartasuna LHI eta Alkartasuna BHI

Ugartemendi, 6
Tfnoa.: 943 88 07 53
Faxa: 943 16 10 48
www.txindokialkartasuna.net



Murumendi LHI1

Mariarats, 1-3
Tfnoa.: 943 88 00 25
Faxa: 943 88 49 29
www.murumendi.org



Loinazpe BHI

Igartza-Oleta, 14
Tfnoa.: 943 88 26 44
Faxa: 943 88 49 37
www.loinazpe.net



Txindoki-Alkartasuna BHI

Foru, 8
Tfnoa.: 943 88 26 84
Faxa: 943 88 18 71
www.alkartasunalizeoa.net

Eguberri zoriontsuak eta Urte Berri on!

Denetik (XXIX)

Maizpide euskaltea

“Kaballitotan” ibili behar zara ala ibili behar duzu?

Zein da zuzena? Lehena edo bigarrena? Bada, “kaballitotan” xeibre hori kenduta, biak daude ondo! Behin baino gehiagotan entzungo zenuten lehena ez dela zuzena, baina Euskaltzaindiak onartua du!

✓ Eneko, zaldiko-maldikoan ibili behar al zara? (egokia)

✓ Eneko, zaldiko-maldikoan ibili behar al duzu? (egokia)

Hori “BEHAR IZAN” aditzari dagokionez; kontuan hartu, ordea, beti ez dugula “aukera” hori izango...

✗ Kalixto, ezin duzu borrela joan etxera, guztiz mozkortuta... (desegokia)

✓ Kalixto, ezin ZARA borrela joan etxera, guztiz mozkortuta... (egokia)

✗ Kalixto, ezin zara kalimotxoa derrotean edan! (desegokia)

✓ Kalixto, ezin DUZU kalimotxoa derrotean edan! (egokia)

“Andonirekin konparatuta”

Euskaraz askoz ere naturalagoak, herrikoiagoak... diren esapideez baliatu orde, izenburukoak bezalakoak erabiltzen ditugu maiz.

✗ Pello, Andonirekin konparatuta, zaharra da! (desegokia)

✓ Pello, Andoniren aldean, zaharra da! (egokia)

“Tximinoa egiten” aritu zen Aiur...

Ez da batere txukuna goiko esaldi horretan “tximinoa egin” hori, baldin eta Aiur aztoratuta zebilela adierazi nahi badugu. Buztinaz, modelatzeko oreaz (plastilnaz)... tximinoren bat egin duela adierazteko, berriz, balekoa da!

✗ Aztoratuta zebilenez, tximinoa egiten ibili zen Aiur (desegokia)

✓ Aztoratuta zebilenez, tximinoarena egiten ibili zen Aiur (egokia)

✓ Aztoratuta zebilenez, tximino-plantak egiten ibili zen Aiur (egokia)

✓ Aitonak utzitako buztinaz... tximinoa eta lehoia egin zituen Aiurrek (egokia)

Hi, Margaita, tontoarena egiteari utzi eta... egingo al dinagu?

Ez, Doro! Hi makala haiz horretarako! Hire aldean “igualekoxea” duk Xinforoso!



Margarita eta Doroteo larrean... gustura baino gusturago!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Gure aitonaren aldean, zaharra da Manuel Fraga hori!
2. Tontoarena egiteari utzi eta ikastolara joan behar duzue!
3. Horrela ibili behar al dun, egun santu osoan?
4. Joxe, gure aldean makalak dituk australiarrak aizkoran!

OHARRA: denak zuzenak, alajaina!



GOIERRITARRA
urtean 27 euro

Egin harpidedun

HITZA
urtean 67 euro

GOIERRITARRA+HITZA
urtean 72 euro

GOIERRIKO hitza

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

902-82 02 01 (Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

harpidetza@hitza.info

Urbalde plaza, 7 behea • Beasain



Irizar, mende bat betea eta hazten

www.irizar.com

Julen Goia, Alar Arruabarrena, Imanol Iruarriz eta Aitzol Idiakez

Harrobiko errugbilariak Ohorezko mailan





Tel: 943 16 22 26 Faxa: 943 16 22 27
Zubizkitza 70-71W - LAZKAO
www.kemenkoz.com
r.p.s. zbki 348/04



Esfortzu probak

Mediku azterketak

Entrenamendu pertsonalizatuak

korrika, txirrindularitza, triatloia, suhiltzaile oposaketak, mendia...

Era guztietako dietak

argaltzeko, kirol errendimendurako...

Fisioterapia eta masaia

Podologia eta hanketako zainketak



ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON
2010



diazabalgua da Julen Goia.

Lazkaomendikoa Alar Arruabarrena; eta

Ordiziakoak Aitzol Idiakoz eta Imanol

Iruarriz. Lehenengoak 18 urte bete berri ditu eta gainerakoek 19 urte dituzte. Dagoeneko errugbiaren gorenean dabilta, Ordiziako taldearekin, maila ona erakutsiz. Euskadiko eta Espainiako selekzioarekin aritzen dira.

Altamira zelai berrian, entrenamenduaren aurretik, elkartu ditugu Ampo-Ordizia Rugby taldeko lau jokalarik gazte.

Alfonbra gainean gaudela dirudi.

Julen: Hemen zikindu ere ez gara egiten. Baina Trevijanonek beste gauza bat zen.

Alar: Ukolondoak, belauak eta iztarrak erre egiten dira.

Zuek errugbian hasi zinetean, lehenengo taldea ez zen

Ohorezko Mailan egongo ezta?

Alar: Hasi eta gutxira igo ziren.

Julen: Orduko errugbiak eta oraingoak ez dauka zerikusirik. Maila ere asko aldatu da. Orain dela bost urteko Ohorezko Maila eta gaur egun dagoenak, ez dauka zerikusirik. Gu izango gara, Espainia mailan, kanpotar gutxien daukagun taldea.

Harrobiari ez diote garrantziarik ematen talde handiek?

Imanol: Diru asko daukatenez, berdin zaie kanpotik bat edo bi ekarri.

Julen: Ordiziarrentzat oso garrantzitsua da. Ordizia bezalako talde txiki batek, aurrekontu txikia daukanak, are gehiago. Harrobitik tira egin beharra dauka.

Imanol: Salvadorrek eta horiek, Liga irabazteko jokatzen dute.

Alar: Guk ezinezkoa dugu Liga irabaztea.

Julen: Beste filosofia bat da gurea. Etxekoekin, ahalik eta atzeritar gutxienera...

Alar: ...eta mantendu.

Lehen mailako taldeak harrobiko jokalariek kontuan hartzen dituela ikustea, garrantzitsua izango da zuentzat ezta? Motibagarria izango da.

Aitzol: Ikusten duzu, Espainiako taldeek ez dutela harrobiaren aldeko apustu handirik egiten. Ordizia bezalako talde batek

apustua egiten du eta horrek jarraitzeko motibatu egiten du. Askok, jokatzeke aukerarik ikusten ez dutenean, utzi egiten dute errugbia.

Errespetua ematen al dute?

Aitzol: Hasieran bai.

Julen: Ohitu beste erremedioerik ez daukagu.

Aitzol: Gu baino 30 kilo gehiago dira.

Julen: Gu baino zaharragoekin aritzen gara eta haiek daukaten esperientzia handia. Zikinkeria hori, malizia... adinak ematen duen esperientzia hori asko nabaritzen da. Denborarekin ikasiko dugu.

Aitzol: Hasierako urteetan horretarako gaude, ikasteko. Klubeko zaharrendandik ahal den guztia ikasi eta ikasitakoa zelaian aplikatu.

Gazteek, zelaian, errespetua jartzeko zer egin behar izaten dute?

Imanol: Ahal den onena eman, bestela akabo.

Aitzol: Taldekideek ondo hartu gaituzte. Lehenengotik gauzak ondo azaltzen dituzte eta saiatzeko gara ondo ulertzen. Entrenatzaileek ere asko laguntzen digu.

Aurreneko partiduan...

Imanol: Nerbioak alde guztietan.

Imanol: Lehenengo partiduan gaizki pasatzen duzu.

Julen: Presiorik ez daukazula esaten dizute baina norberak ere kunplitu nahi izaten du. Presio alde batetik, nobatoa zara beste aldetik...

Aitzol: Baina orduan inoiz baino gehiago laguntzen dizue.

Imanol: Jokatu genuen lehenengo partidua lagunartekoa izan zen.

Aitzol: Nik, Bera-Beraren kontrako derbian debutatu nuen eta izugarria izan zen. Zure buruari galdetzen diozu, ea zer arraio egiten duzun hor. Ondoan jokalarik onak ikusten dituzu, horretatik bizi direnak... eta zure buruari galdetzen diozu zertan zabiltzan. Baina egin beharra daukazu eta kitto.

Julen: Jendeak ere asko egiten du. Bazter guztietan jendea egoten da... 1.500-2.000 lagun, guri begira... Momentu baxuan bal-

Hasierako urteetan ikasteko gaude. Klubeko zaharrendandik ahal den guztia ikasi eta ikasitakoa zelaian aplikatu.

Aitzol Idiakoz

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



ANDRAITZ
Fisioterapia Zentroa

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Errehabilitazioa
Masaje terapeutikoa
Kirol masajeak
Lunbalgiak eta ziatalgiak
Drenaje linfatikoa
Kinesiologia

Ordutegia:
astehentik ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32



OREKA

GESTION URBANA



Etxebizitzak eta unifamiliarrak kostuko prezioan,
tartekaririk eta promotorearen irabazirik gabe.

Etxebizitza kooperatibak; etxebizitzen eta
unifamiliarren promozio ireki eta eskuragarriak
Goierriko eskualdean.

Etxebizitza sustapenen kudeaketa, **etxe zaharren**
ordezkapena eta **partzelen garapena**.

Babes ofizialeko etxebizitzen sustapena.

BIDERAGARRITASUN AZTERKETAK KOSTURIK GABE

OREKA  GESTION URBANA

Garagartza Enparantza 9, be 20.240 Ordizia
Tel. 943 086 662 — 608 537 059
Email: oreka@oreka.me



www.oreka.me

PITAS  **PITAS**[®]

Arrautzak eta Bere Elikagaiak

Gorrotxategi Oilategia E.A.
Bikuña, 19. 20213 Idiazabal (Gipuzkoa)
Telf.: 943 187 676 Fax: 943 187 661
e-mail: luis@avicolagorrotxategi.com
web: www.huevospitass.es

GORROTXATEGI
IDIAZABAL

Julen Goia



Adina: 18 urte.
Nongoa: Idiazabalgoa.
Postua: hiru laurden bezala.
Zaletasun bat: ahal dugunean parrandara ateratzea, oso gutxi ateratzen gara eta.
Amets bat: 20 bat urtez errugbitik bizitzea Ingalaterrako edo Zelanda Berrik talde handiren batean.

Alar Arruabarrena



Adina: 19 urte.
Nongoa: Lazkaomendikoa.
Postua: Planker, hirugarren lerroa. Normalean, 6 zenbakia.
Zaletasun bat: Denbora gutxi edukitzen dugunez, lagunekin egon eta parrandara ateratzea.
Amets bat: Errugbitik bizitzea, talde on batean.

din bazaude, txalok asko laguntzen dute.

Jende gehiago hurbiltzen al da errugbira?

Imanol: Orain ikusten da jende gehiago dabilela errugbian. Txikitxo gehiago hurbiltzen da.

Julen: Maila guztietan taldeak ateratzeko adina jokalaria dago.

Imanol: Gu orain dela 5-6 urte, zortzi katu ginen.

Aitzol: 12ko taldeak 15ekoaren kontra jokatzen genuen.

Julen: Bi ligatan aritzen ginen: gure ligan eta jubenilen ligan.

Imanol: Nire ustez, errugbi moderno honetara egokitzeak ekarri du hori.

Errugbi moderno aipatu duzu. Zeri deitzen diozu?

Imanol: Aldaketa egon da. Moderno esaten dudanean, zera esan nahi dut: lehen lokatza zegoen, beste teknika bat da...

Goi mailara iritsira, teknika asko aldatu al da?

Imanol: Lehen bakarrik pentsatzen genuen, aurrera joan eta

entsaioa sartzea. Ezberdin pentsatzen dugu.

Aitzol: Zuzen joaten baldin bazara, 120 kiloko bat aurrean tokatzen bazaizu, atzeraka botako zaitu. Hori lehen ez zen pasatzen, baina orain bai.

Mutil handiak egiteko asko jaten al duzue?

Julen: Ez dakit handiak egingo garen baina jateko problemarik ez daukagu.

Maila txikiagoetan, neska eta mutil ugari dabilta.

Errugbia indartu egin da beraz.

Imanol: Bai, orain jendea animatu egiten da. Futbola ikusiegia dagoelako-edo, jendea beste kirol batzutan hasi da. Goierrin errugbiak indar handia hartu du.

Julen: Neskak aipatu dituzu, eta datorren urterako talderen bat ateratzekotan dabilta. 11 neska dabilta orain. Ordizia bezalako herri batentzat pentsatzea, prebenjaminetatik seniorretara

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

ALDANONDO GARAJEA
 MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
 alineazioa,
 aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
 engrasea

Frenu pastilak, tubo
 eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 16 72 57

Aitzol Idiakez



Adina: 19 urte.
Nongoa: Ordiziakoa.
Postua: 12 zenbakia.
Zaletasun bat: Denbora dagoenean lagunekin parrandan ateratzea, lagunekin egotea. Hobby nagusia, errugbia da.
Amets bat: Zelanda Berrira joatea eta urtebeteren bat egotea, errugbian jokatzeko.

Imanol Iruarriz



Adina: 19 urte.
Nongoa: Ordiziakoa.
Postua: Bigarren-hirugarren lerroa.
Zaletasun bat: Lagunekin, errugbi partidua ikustea, garagardo bat eskuan.
Amets bat: Polita izango litzateke, jubeniletako jokalaririk guztiek, lehenengo taldearekin jokatzeko.

arte, 3 talde daudela, orain neskena ere bai.. Orain dela 6 urte pentsaezina zen.

Zuek adibide izango zarete gaztetxoentzat.

Imanol: Partidu aurretik, pasilloa egiten dute eta asko poztzen du horrek.

Julen: Eta badakite, hemendik urte batzutura, lana ondo eginez gero, beraiek izango direla hurrengoak. Posible dela ikusten dute. Hurrengo belaunaldia beraiek izango dira.

Aitzol: Klubak nahi duena hori da: hemendik urte batzutura, ahalik eta atzerritar gutxienekin jokatzeko eta ia denak etxekoak izatea.

Selekzioan gauzak asko aldatzen al dira? Serioagoa al da? Espainiakoarekin adibidez, Julen eta Imanol aritu zarte.

Zer moduz?

Imanol: Eduki dugun entrenatzailea gogorra izan da. Baina

berez, esperientzia oso ona da. Lagun berriak egiten dituzu... Portugal, Polonia, Italia, Frantziara joatea... Esperientzia hartzen da eta esperientziak asko balio du.

Julen: Gogorra aipatu du Imanolek. Gu ohituta gaude hemen, zortzietan ordua jarri eta bost minutu beranduago azalduta ere berdintsu dela. Baina han ez, ordua ordua da. Orduarekin beza-la denarekin. Janarekin... han dena mugatuta dago. Selektzioa da eta ez da broma. Hasieran ohitzea kosta egin zitzaigun, hemengo patxadarekin ohituta. Esperientzia bezala, ona da. Europako txapelketa batean hirugarrena ez zara askotan gelditzen.

Imanol: Marka hautsi genuen: 19 urtez azpiko selektzioa inoiz iritsi gabe omen zegoen hain urruti. 6 ginen gipuzkoarrak.

Gipuzkoan errugbia, indartsu dago orduan.

Julen: Bai, bai, indartsu dago.



RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN



xetai

nafarroa etorbidea 1
beasain
www.xetai.net



Beste talderen batera joateko aukeraik izango bazenute...

Alar: Imaginatu ere ez gara egiten.

Julen: Lehenengo ikasketak hemen egin eta behin ikasketak bukatutakoan, Zelanda Berrira edo Ingalaterrara bi urterako probatzera joatea... bi urte sabatiko hartu eta errugbian aritu... mundua ezagutzeagatik, eta jokalaria bezala eta pertsona bezala ikasteko. Aukera izanez gero, egingo nuke.

Imanol: Talde on batera joanez gero, izugarritzko esperientzia izango litzateke.

Errugbitik bizitzea gustatuko al litzazizueke?

Aitzol: Gustatu bai, baina oso zaila da.

Imanol: Oraintxe bertan. Ikusten da babesleak-eta sartzen ari direla eta gero eta jende gehiago dagoela.

Julen: Diru asuntoa gero eta gehiago mugitzen da. Atzerritarrek kobratzen dute hemen, baina Espainiako talde guztietan, denek kobratzen dute.

Aitzol: Musutruk gutxi dabilta, gu bakarrik. Besteren bat egongo da baina gutxi.

Mailari eustea gero eta errazagoa ala zailagoa da.

Imanol: Gero eta zailagoa.

Julen: Gero eta maila altuagoa dago.

Aitzol: Gero eta berdinduago egoten da liga normalean.

Xikel

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Equiberri on!

☎ 943 16 16 06 - 619 770 600
Urdaneta, 41 **ORDIZIA**

Gabon jai zoriontsuak pasa ditzazuela!

HIDALGO
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Diseinua Kalitatea
Berrikuntzak Garantia

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA



ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Iñauti
Hertz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zeh. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

O R K I

Opariak
Arropa osagarriak

Gabon zoriontsuak!

Nafarroa Etorbidea, 5
☎ 943 88 10 50
BEASAIN

ZAHARRA • BERRI
IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrot@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

Zorionak eta urte berri on!!
2010ean ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.



SASIETA
MANKOMUNITATEA

Lehiaketa berezia!

Sasieta egutegiak 10 urte bete ditu. Hori ospatzeko lehiaketa berezia prestatu dugu. Aurten 4 hilabetetako marrazkiak gaizki daude. Zaborrak nahastu ditugu eta horrela ez dago birziklatzerik. 500 mantal zotz egingo ditugu. Zehastasun gehiago gure web orrian: www.sasieta.net

Dar-dar produkzioak: eman eta eman

L egorretako bi
anaiek, Asier
eta Iker

Zinkunegik, Dar-dar
antzerki ekoiztetxea
sortu zuten duela ia
hamar urte. Ekoizleak
izateaz gain, Asier,
aktorea da eta Iker,
argizatzailea.



Nolatan erabaki zenuten Dar-dar produkzioak sortzea?

Asier: Ordura arte, ni aktore bezala nengibilen eta Iker teknikari bezala, beste gauza batzutan eta beste jende batentzat. Ni lau urte segidan egon nintzen ikasten Sevillan eta 1998an itzuli nintzen. Orduan hasi ginen ideiarei bueltak ematen. Nik argi eduki nuen beti, bueltatutakoan ekoiztetxe bat muntatuko nuela, segurasko. 1998 urte bukaeratik 2000. urtera bitartean enpresa sortzeko heltze prozesua izan zen.

Izenari erraparatuz gero, dar-dar egiteko motiborik ba al dago?

Asier: Ez dago dardarka jarri beharrik. Barojaren ipuin batetik ateratako izena da. Izen bila genbiltzan, gauza asko begiratu genituen... Argi geneukan, izen bat nahi genuela, sonoritatea zuena, erraz gelditzen zena eta euskaraz eta erdaraz esateko ahalmena ematen zuen izen bat zuena. Kide batek, Barojaren ipuin batean ikusi zuen dar-dar espresioa eta hortik hartu genuen. Gainera gustatzen zaigu, batetik, euskaraz duen esanahia eta besterik, erdaraz duena. Dar, dar, dar... Eman, eman, eman. Hori asko gustatzen zaigu. Enpresa bezala gure filosofia sintetizatu dezake.

Euskaraz, beldurraren onomatopeia da.

Asier: Ez dugu inor beldurtu nahi.

Iker: Antzoki batera sartzen garenean, askotan esaten dute: dar-darka hasten gara. Dena den, uste dut, profesio honetan, dardarka nahiko jende ibiltzen dela. Azkenaldi honetan gehiago oraindik. Eta orain, krisiaren ondorioz, dar-dar gehiago dago.

Asier: Dena dago dardarka.

Iker: Izena jarri genion momentutik, barneratuta daukagu, batzutan dardarka ibili beharko garela, eta segi aurrera.

Ematen jarraitzea izango garrantzitsuena ezta?

Asier: Bai. Asko eskaintzen duen antzerki ekoiztetzetat daukagu gure enpresa. Proporzioan, eskatzen duena baino gehiago. Kalitate-prezioan, gure produktua oso ona da, arlo guztietan. Gainera, guk ekoizpen ildo bezala, oso argi dugu, gizarteari gauza eskaini diezaizkiokela arteak eta antzerkiak. Itsu-itsuan pentsatzen dugu mundu hau leku hobe bat izan litekeela eta kultura dela tresna agian bakarra, mundua leku hobe bat bihurtzeko. Guk mundu hau leku hobe egin nahi dugu eta horretarako gure produktua erabiltzen edo eskaintzen dugu. Konpromiso sozialeko ikuskizunak egiten ditugu, gehienbat, azken hiru urteetatik aurrera, bai helduentzat, bai umeentzat eta bai gazteentzat. Hori da gure lan ildoa.

Gai sozialak lantzen dituzue beraz.

Asko eskaintzen duen antzerki ekoiztetxe bat dela uste dugu Dar dar produkzioak.

Asier: Bai, konpromiso sozialeko produktuak egiten saiatzen gara. Oso ondo dago barre egiteko produktua egitea. Oso beharrezkoa da barre egitea. Oso ondo dago, dramak sortzea. Baina gu, pixka bat haruntzago joaten gara. Zerbait egiten hasi aurretik, asko kuestionatzen gara, zer kontatu nahi dugun horrekin. Zertarako, zer sortu nahi dugun jendearengan gure produktua ikusten duenean. Eta gehienbat, hori nabarmendu egin da azken hiru urte hauetan. Hiru urte hauetan, sortu ditugu, batetik, 'Gaurko menua', helduentzat, bi emakumeren historia sukalde batean. Gaur egun emakumearen inguruan dagoen gogoeta sakon bat da. Ikuskizun oso konprometitu da. Haur eta nerabeentzat, 'Eta zer?' sortu dugu. Guztiok desberdin izateko dugu eskubidearen inguruan.

Iker: Zerbait berria sortzeko pentsamenduarekin hasten garenean, pentsatzen dugu zein arazo dauden gizartean, zer kontatu nahi dugun. Jendea antzokitik ateratzen denean, guk egin dugunarekin, jendeari zerbait pentsarazi lortu nahi diogu. Bakoitzaren barruan zerbait sortzea. Asierrek esaten zuen bezala: al gara sortzea oso ondo dago, baina sortzen baduzu zerbait komikoa, zerbait kontatzen duena eta iriteten denean jendeak zerbait egin beharko genuke esatea... Momentuz sortu ditugun

istorioak, zerbait kontatzeko, komikoak dira baina horrek ez du esanahi beti komikoa izango denik. Jendeari pentsarazi nahi diogu.

Asier: 'Gaurko menua' ikuskizunarekin, jende asko hurbildu zaigu emanaldiaren ondoren, esanez: zeinen ondo pasatu

dudan baina etxera zer pentsatu askorekin noa. Hori da gure helburuetako bat.

Iker: 'Eta Zer?'-ekin ere berdin. Gainera badu material didaktiko bat ikastetxeetan-eta erabiltzeko.

Asier: Gure produktua interes orokorrekoa dela uste dugu. Hau da: kultur teknikari bati egin dakiok, berdintasun teknikari bati egokia suerta dakiok... jendeari orokorrean interesgarria suerta dakiok. Hau da, gizarteak dituen arazoaren inguruan, gogoeta bat sortzen saiatzen gara. Hori da Dar-dar.

Proiektu berri bat sortu behar duzue, zein pauso jarraitzen dituzue? Zuek egiten al duzue guztia?

Asier: Ez, momentu honetan ez dugu guk dena egiten. Ekoiztetxe profesional bat gara. Ideia ezberdinak manejatzen ditugu eta ideia batengatik apustu egiten dugunean, aukera ezberdinak daude. Baina guk mundu guztia kontratatu egiten dugu. Dramaturgo edo idazle bat kontratzen dugu egokitzape-na egin dezan. Zuzendari bat kontratzen dugu produktuaren zigu artistikoa hitzartzeko berarekin. Eszenografoa kontrata-

GERRIKO

LIBURUDENDA



☎ 943 88 65 00
Faxa: 943 88 7971
gerrikoliburudenda@euskalnet.net
Elosegi 16 LAZKAO

Gabon zoriontsuak eta
Urte Berri on!

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239



Lurrindegia eta opari gaiak

Goi

943 16 00 56
goierritarra@goierrikohitza.info

Goierritarra aldizkaria

Iker, argi artean

Teknikari batek zein lan egiten du?

Hainbat kurtso egin ditut telebistako argiztapenerako, zineko argiztapenerako, antzerkiko argiztapenerako... Soinu ikastarok ere eginak dauzkat. Baina ni argiztatzaille sentitzen naiz. Dena den, soinu teknikaririk ez daukagu eta biak egiten ditut.

Nola egiten dudan lan? Ikuskizun bat sortzeko garaian, prozesu horretatik hasita, zuzendariaren eskutik joan behar duzu. Argiztatzaille batek lortu behar duena da, argiztapenarekin eszena bat, leku batean kokatzea. Leku batean eta ordutegi batean. Lortu behar duzu bolumen bat, goizeko hamarrak edo arratsaldeko 6ak ez dira berdinak, etxe bateko edo parke bateko iluminazioa ez da berdina... Zuzendariari proposatzen joaten zara, baina beti azken erabakia izaten duena, zuzendaria izaten da. Plano artistikoan, produkzio batean zuzendariak hartzen ditu erabakiak.

Gero, emanaldietara iristen garenean, dena muntatu behar da. Askotan 40 foko izaten ditugu, eskilaran gora-behera... Zuk plano bat eginga daukazu. Egia esan, Euskal Herrian antzoki txiki asko dago eta ezin duzu nahi duzuna egin, nahiko mugatua sentitzen naiz alde horretatik behintzat.

Ikuskizun batean, argiak bere pisua dauka, ezta?

Nik uste aktorea bezain garrantzitsua dela argia. Aktorea gaizki argiztatuta baldin badago, edo ez baldin bada ikusten, ez da berdina izango da. Azkenean, argiak dena biltzen du ikuskizun bateak.

tzen dugu eszenografia diseinatu dezan. Gero eszenografia hori egingo duen enpresa bilatzen dugu. Zuzendariarekin aktoreak hitzartzen ditugu, irizpide ezberdinak manejatuz. Kastinga itxia dagoenean, normalean hurrengo pausoa, entsaioretan sartzea izaten da. Aurreprodukzio epeak, urtebete edo bi urte eraman ditzake produktu bat estrenatua egotera iristen denerako.

Beti burua martxan ibiliko duzue beraz.

Asier: Beti gauza berriak pentsatuz.

Iker: Aukera ezberdinak eduki beharra daukazu. Horretaz gain, merkatua nola dagoen ikusten duzu, edo zer ari den mugitzen hortikan... Guk bi emakumeren istorioa sortu genuenean, ez zegoen antzeko ezer merkatuan. Agian pentsatuta daukazu hori egitea baina bi edo hiru ikuskizun berdintsu dabilta bueltaka eta eduki behar duzu zerbait pentsatuta beste alde batetik jokatzeko. Garrantzitsua da gauza ezberdinak edukitzea buruan. Erabaki bat hartu eta horren alde apustu egin.

Asier: Enpresa bezala zein prozesutan zauden edo norantz joan nahi duzun, horrek ere baldintza dezake zein produktu egin



nahi duzun. Gure apustua gero eta gehiago da, ahal den kalitate handieneko produktua eskaintzea. Horretarako, kontratatzen duzun jendearen perfila gero eta hobea izan behar da. Horrek exijitzen du, gero eta inbertsio handiagoa. Horrek darama, gero eta arrisku handiagoa hartzea. Gu bide horretan gaude. Hamar urte daramatzagu eta ez dugu edozer egin nahi. Gauzak oso konkretuak egitea interesatzen zaigu eta horretan ari gara apustu egiten. Gero eta produktu hobea, gero eta prezio kompetitiboenean eta ahal den emaitza onenak lortzen saiatu, konpromisoaren eta lanaren bidez.

Aktorea eta argiztatzaillea. Talde polita, beraz.

Iker: Bi pertsona egoteak, lan guzti hauek egiten, baditu bere alde onak eta alde txarrak. Agian alde txarrak gehiago ditu onak baino. Izugarriko lan pila suposatzen du. Asierrek produkzioa eramaten du, nik salmentak eramaten ditut. Horretaz gain, ikuskizunetan gaude... Ni ikuskizun guztietan egoten naiz, Asier batzuetan. Lan asko suposatzen du, baina hemen gaude, dar-darka. Bizi gara behintzat!

Asier: Bizirauten!

Iker: Gaur egun merkatua oso-oso zaila dago eta lan asko egin beharra dago aurrera jarraitu ahal izateko.

Produktua saldu egin behar izaten da. Hori zure lana da beraz, Iker?

Iker: Bai. Lan pisua da oso. Egunaren arabera baina askotan



**Zurgindegia
mekanikoa**
AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU
ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxe: **943 88 90 17**



ile-apaindegia mistoa solarium bertikala

Joan Iturralde, 5-7 (solairu artea) BEASAIN T 943 161 105



Asier, lau urteko ikasketak Sevillan

Arte Dramatikoa ikasi zenuen Sevillan. Nolako esperientzia izan zen?

Ni beti arduratu izan naiz nire burua aktore bezala formatzeaz eta horretan saiakera handia egin dut, lau urtean, kanpora joanez. Oso urrutira gainera, Sevillara. Esan liteke, momentu hartan, Centro Andaluz de Teatro, Europako eskolarik interesgarrienetakoa zela. Mila kilometro daude. Ezin duzu, agobiatuta nago eta etxera etorri. Eguberrietan eta udan bakarrik etorzen nintzen, ezin nuelako. Hegazkina hartu eta ezin nuelako etorri. Hegazkina garesti zen momentu hartan, ez orain bezala. Eta autobusez, 13 ordu. Bi egunerako ezin duzu 26 ordu egin. Aurreneko hiru hilabeteak gogorak egin zitzaizkidan. Eguberrietan esan nion nire buruari: hemen nik nahi dudalako nago; momentu batean ezin badut, hemen egoteari utziko diot. Txipa aldatu zen nire barruan eta handik aurrera ondo egon nintzen. Sevillak gainera, gauza bat dauka ona: pertsiana altxa eta egunero zerua urdin-urdin dagoela. Londresa edo Belgikara joan izan banintz, segurasko ez nuela lau urtean etsiko. Gainera jende oso jatorra neukan inguruan eta oso lagun onak egin nituen.

Aktore bezala, lanik egiten al duzu zuen ekoizpenetan?

Batzutan bai, besteetan ez.

Lan ezberdin asko egin behar izaten dituzue. Zer gustatzen zaizu gehien?

Niri, dudarik gabe, eszenatokia. Ni eszenarioan egoteko jaioa naiz. Baina beste alde batetik, ekoizle ere banaiz. Orduan, nik argi daukat produktu batzuetan nire burua ikusten dut aktore bezala eta besteetan ez. Eta ez dit beste munduko ahaleginik suposatzen gauza batzuetan ez egotea, nahiz eta nik eszenatokia behar dudana. Argi dago: 'Gaurko menua' ikusten dudanean, gaur egun ni ez naiz emakumez egiten ikusten eta saiatuko naiz kontratatzen ahal dudana Euskal Herriko bi aktrizik hoberenak produktu hori egiteko eta egia esan hala izan da: Ane Gabarain eta Lierni Fresnedo. Beste batzuetan behar bada nire burua ikusiko dut eta egongo naiz. Eta beste batzuetan nire burua produktu horretan ikusiko dut baina ekoizpen lana hain handia denez, behar bada ezin izango dut. Ekoizle bezala interes batzuk dauzkat eta nire aktore interesak ez daude ekoizlearen interesen gainetik inondik inora. Seguraski alderantziz. Enpresa bat sortzeak inbertsio handia darama eta asko arriskatzen duzu eta gure produktuak ezin du baldintzatura egon nire ego-aren satisfakziora. Agian milioi euro mordo bat edukiko nuke, igual. Ez da kasua noski.

dei pilo bat egiten duzu eta ez duzu lortzen bisita bakar bat ere lotzea. Guk, normalean, plangintza bat egiten dugu salmentarako, telefonoa hartzen dugu eta udaletxez udaletxe deika hasten gara, bilera bat lortzen dugu, berarengana joaten gara gure produktua aurkeztera. Pertsonalki gustatzen zaigu gure produktuak aurkeztea. Aurrez aurreko harreman hori edukitzea garrantzitsua dela uste dugu. Orain merkatua dagoen bezala....

Zaila al dago?

Iker: Bai. Merkatua oso aldrebesa dago.

Asier: Noski, krisiak etortzen direnean, lehenengo murrizten den partida beti berdina izaten da: kulturarena.

Iker: Euskal Herria gainera nahiko txikia da. Antzerkiaz bizitzeko oso txikia da. Produktora asko daude....

Asier: Dagoen merkatutarako produktu gehiegi dago.

Iker: Kanpora ateratzeko ere, oso zaila dago. Orain gainera, erkidego bakoitzak bere produktuak babesten ditu. Adibidez, iaz Andaluziako sarean, kanpoko talde bakarra sartu zen eta hori 'El Brujo' zen. Kanpora ateratzea oso zaila dago.

Asier: Momentu honetan dirulaguntzak erkidego guztietan ematen ari dira. Zer ari da gertatzen? Dirulaguntzak ematen dituen administrazioa saiatzen da eman duen diru hori errentabilizatzen. Ondo dago. Baina zer gertatzen da? Sare edo erkidego bakoitzak hori egiten duen garaian, kanpoko produktuari askoz ere zailagoa egiten zaio merkatu horretan sartzea. Irla


SILVIA MIRAS CASASAYAS
 ODONTOLOGO A
 KOL. Zko. 649 RPS. 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
 SAN INAZIO KALEA, 2
 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
 Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
 urraki@over.es www.over.es

SOLOZABAL
 AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
 ☎ 943 88 72 76



mordo bat sortzen ari dira. Euskal Herrira sartzea, kanpokoia izanda, oso zaila da eta Euskal Herritik ateratzea ere oso zaila da. Aktore bat, Espainia mailan oso ezaguna dena daukazu, edo badakizu zure produktua zure autonomia erkidegotik ez duzula aterako. Horrek zer egiten du? Produktuaren errentabilitatea asko konplikatzeko du. Momentu honetan antzerkia produktu profesional bat sortzeko eta artistikoki oso ondo egoteko, jendeak ezin du imajinatu zenbat diru gastatu beharra dagoen. Eta horren amortizazioa oso konplikatu da. Bi, gehienez hiru urtera kalkulatu behar duzue eta Euskal Herrian, 54 antzoki daude sarean. 54 horietatik ez dituzue 54ak egingo. Ezta 50 ere. Gehienez ere 40 egingo dituzue. Inork ez ditu denak egiten. 40 emanaldirekin eskatzen duen inbertsioa errentabilizatzea oso konplikatu da. Orduan, hortxe gabiltza, borrokan.

Bai haurrentzat, helduentzako eta gazteentzako produktuak dituzue.

Asier: Gure ekoizpen filosofian adin guztiarentzako produktuak sortzea dago. Une honetan, esan genezake, 'Eta zer?' publiko guztiarentzako dela. Egia da eskolentzako emanaldi asko ari garela egiten. Beasainen eta Ordizian egongara. 6tik 12 urte bitarteko haurrek ari dira etortzen. Berez, ikusi duten helduek ere oso ondo pasatu dute.

Iker: Ikuskizun honek kontatzen duena jende guztiari interesgarria iruditzen zaio.

Helduen edo haurren merkatua da errazagoa?

Asier: Merkatu errazagorik ez dago, lana serio hartuz gero.

Iker: Askotan harrিতa gelditzen naiz: helduentzako ikuskizuna bada eta foko asko baldin badituzue, ez dizu inork ezer esaten. Baina haurrentzako antzerkia egitera joaten baldin bazara, esaten dizute, haur batentzako hainbesteko foko? Helduak eskubide gehiago al du eta haurrentzako nola den berdina da nola egiten den? Alegia, haurrek ere kalitatezko antzerkia ikusteko eskubidea dutela.

Iker: Ez dauka zertan sinpleagoa izan behar. Gastu aldetik ere ez dauka izan beharrik merkeagoa. Haurren ikuskizunetan lau aktore izan daitezke eta helduenean, bi. Haserretu egiten naiz, iruditzen baizait haurrek ere eskubide bera dutela zerbait ongi egina ikusteko.

Asier: Exijentzia eta konpromiso maila gure produktuarekiko, guretzat berdina da, helduentzako egin eta umeentzako egin.

10 urte eta gutxienez beste 10 urte betetzeko asmoarekin egongo zarete noski. Proiektu bat baino gehiago ibiliko duzue buruan, ezta?

Asier: Baditugu bai proiektuak. Orain egia da merkatua oso konplexua dagoela. Oso-oso-oso. Arrisku handi asko dago momentu honetan gure sektorean. Denetan, baina gurea gehiago. Nik beti esaten dut antzerkia kontsumo minoritarioko produktu bat dela. Eta hori hala da. Horren proba gisa, jendea galdetu besterik ez dago, urtean zenbat aldiz joaten den antzerkira.

Edo bi urtean behin edo hiru urtean behin zenbat aldiz joaten den antzerkira. Edo azken 10 urteetan zenbat aldiz joan den. Edo bere bizitzan zenbat aldiz joan den. Horregatik esaten dut kontsumo minoritarioko produktu bat dela antzerkia. Une honetan dagoen bezalako krisi bat dagoenean, kontsumo minoritarioko produktu horiek gehiago sufritzen dute. Eta arrisku-tua da antzerki ekoiztetxeentzat. Ekoizpen asko, merkatu gutxi...

Halako lekutan halako ikuskizuna eskaintzea amesten al duzue?

Halako lekutan halako ikuskizuna eskaintzea amesten al duzue?

Asier: Ez dit motibazio berezirik sortzen Madrilen egitea, ez dakit zein antzokitan. Baina zer egiteak bai, motibazio berezia sortzen dit. Orain badarabilkigu eskuartearen proiektu bat, espero duguna gauzatzea... Ez dugu aurreratuko baina mugari bat izango litzateke euskal antzerkian. Benetan. Gehiago motibatzen nau zer egin, non eginek baino. Ez dut gehiago baloratzen, Donostiako ikuslea, Beasaingo baino. Edo Madrileko edo

Konpromiso sozialeko produktuak egiten saiatzen gara, bai haurrentzat, bai gazteentzat eta bai helduentzat.

suquia

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA


e-posta: suquia@suquiahogar.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250


BEASAIN 20200 GIPUZKOA

altzariak - elektragailuak



Gure izatea kalitatea eta zerbitzua


Etxean bertan martxan jartzea dohainik



Asier: kultur gestio arloan, betiko pentsamolde gehiegi dagoela ikusten dugu. Gauza berriztagarri asko egin daitezke, egiten ez direnak, pentsamolde karratuegiak daudelako.

Iker: Guk espero dugu krisi honetatik indartuta ateratzea. Daramagun bidearekin, gure esperantza hori da.

Asier: Ingalaterran, 70eko hamarkadan uste dut izan zela, krisi ekonomiko oso garrantzitsu bat izan zen eta kultur sektorea oso baliagarria izan zen krisi horri buelta emateko. Lanpostu asko sortu zituen inbertsio ez exageratuekin. Motor ekonomiko oso garrantzitsua izan zen Ingalaterrako ekonomiarentzat. Hor goian dabilen jendeak aztertu beharko luke momentu hartan han zer egin zen eta zer suposatu zuen. Badirudi euskal enpresa eta euskal kultura, tornilloaren eta plateraren inguruan dagoela. Baina Euskal Herrian askoz ere gauza gehiago badaude, agian, egoera honetatik ateratzeko edo egoera hau hobetzeko baliagarri izan daitezkeenak.



Bartzelonako ikuslea, Legorretakoa baino. Noski, lan egiteko baldintza berdinak jarrita eh? Ikusleak nik berdin errespetatzen ditut, herri txiki batekoa edo herri handi batekoa.

Iker: Teknikari bezala badaude leku batzuk, iluminazioa muntatzen gozatu egiten duzula. Nahi duzun guztia muntatzen duzu, oso lan egiteko leku egokia da, denetik duzu.... Ikuskizuna ikusten duzunean eta efektuak sartzen ari zarenean, esaten duzu: bai, hau da! Baldintza egokietan egitea da kontua.

Ametsa bai da, gauzak erakargarriak egitea pertsonalki, bai iluminazioa sortzeko garaian... Ametsa, bizi garen baino hobetoxeago bizitzea honetatik. Enpresa bezala pausoak ematen ari gara, gero eta hobea goaz, bide bat egin dugu eta espero dugu gehiago egitea eta bizitzeko era hori hobetuaraztea, hori da ametsa. Eta lortzea, guk nahi ditugun ikuskizun erakargarri horiek aurrera eramatea

eta gure ildo berdinetik jarraitzea, zerbait kontatzen duten ikuskizunak, benetan mamia duten ikuskizunak egitea.

Legorretan, hiru aktore bazaudete: Jose Ramon Soroiz, Xabier Agirre eta Asier Zinkunegi. Hiru legorretar oholtza gainean... Ez legoke gaizki.

Asier: Nork daki! Hiru aktore profesional gaude. Teknikariak ere, hiru gaude. Kurioso da: mila eta hirurehun inguruko herri batean, profesio honetatik "bizi den" hainbeste jende izatea, ez da

Antzerkia kontsumo minoritarioko produktua da. Jendeari galdetu besterik ez dago bere bizitzan zenbat aldiz joan den antzerkia ikustera

normala.

Zer dago berezia Legorretan?

Asier: Xelebre batzuk garela! Ez dakit. Nire kasuan behintzat, esan behar da, zure hurbilean norbait ikustea honetatik bizi dena, agian lagungarri suertatzen zaizula nik ere posible dudala ikusteko.

Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA


Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Pottoka
KAFETEGIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



Eibarko El Corte Inglés

Beste estilo bat eguneroko erosketetarako



SUPERMERTURIK ONENA

Espazio bakar honetan, produktu freskoetan kalitatirik onena eta janarietan ugaritasun paregabea aurkituko dituzu beti.

Lehenengo markak eta gure lurreko produktu tradizionalak El Corte Inglés-en markako produktuen garantiarekin.

Eta hori guztia preziorik onenetan.



EGO GAIN, 7. EIBAR

ETA GOURMETAREN KLUBA EL CORTE INGLÉS-EN

Gourmetentzako denda handia munduko bazter guztietatik heldutako benetako delikatessen deritzenekin. Irandar kabiarrak, xanpain frantsesa, ezkur-urdaiazpiko iberiarra...


Gastronomia-luxuok gozarazi egingo diete ahorik finenei ere.



ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10 - 22. EROSKETA KARTA. EPEKAKO FINANTZAKETA/SALMENTA. ETXERA BIDALTZEA. BIDAI AGENTZIA. ASEGURU ZENTROA. KAFETEGIA... ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA: KONFORME GERATU EZIK, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA. GUREKIN HITZ EGITEKO: 901 122 122

www.elcorteingles.es

INTERNETEKO DENDA HANDIA



3 txirrindulari
7 egun
988 Km
11 komeria

Patxi Madariagak, Fermin Mendiak eta Fermin Zunzunegik txirrinduz Ruta de la Plata ibilbidea egin zuten udan Fernando Lopez, autoz, laguntzaile zutela

Abuztuaren lehen 7 egunetan Sevillatik Santiagorako bidea egin zuten hiru txirrindulari lazkaotarrek. Ondoren bertan ateratako argazkiei iruzkin umoretsuak gehitu eta erakusketa jarri zuten Ansoategi Herrikoan. Argazki erreportaje honen bidez Goierrira zabal-tzen dugu beraien 'abentura'.



1. etapa, Sevilla, Monesterio (Badajoz).



2. etapa, Alcuéscar (Caceres).



3. etapa, Carcaboso (Caceres).



4. etapa, Calzada de Valdunciel (Salamanca).




5. etapa, Puebla de Sanabria (Zamora).



6. etapa, Allariz (Ourense).



7. etapa, Santiago (A Coruña).



Bidaian zehar denerako aukera izan zuten. Caceresko alde zabarra bisitatu eta bertako egunkari saltzailearen irudiarekin txantxetan aritu ziren. Galizian sartu ziren egunean, berriz, 5 mendate igo zituzten: Padornelo, La Canda, Cañizo, Fumaces eta Estibadas. Argazkian ikusi daitekeen bezala Cañizoko gainera iristean Patxiri kostatu zitzaion arnasari buelta ematea. Ferminek, berriz, ez dirudi asko sufritu zuenik mendatea igotzeko.



ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

e txekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



IBAI ONDO
ARROZTEGIA

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Altzariak neurria


Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Sniff, sniff...
Zer primo, ez al
duk fruta usainik
bartzten?



Keba, keba, nik
aldameneko bentako
urdai azpikoa usaintzen
diat,, kar, kar...



Xumarra beti txantxa
egiteko prest, Allarizko
eliza atarian limosna
eskean jarri zen.

Bebin Santiagora
iritsita, nola ez ba,
mabaiaren inguruan
ospatu zuten bidaiaren
bukaera.



 **izal** ☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño
baserría
IDIAZABAL
PINTURA eta PAPERGINTZA

 **biok** kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala
Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7

AMEBI
 Sagardotegia
**Erretegi bezala
zabalik**
* Eguneroko menuak
* Karta zerbitzua
* Ospakizunak
* Plater konbinatuak
Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



Hunberto Arostegi, konpostik onena berera

Gipuzkoako Foru
Aldundiak antolatutako
Etxeko Konpostajearen
I. Lehiaketa irabazi du

Gipuzkoako 102 konpostatzailereren artean, hamar finalista eta hamar horietatik txapeldun bakarra: Segurako, Hunberto Arostegi. Duela bi urte jarri zuen segurarrak etxeko lorategian konposta egiteko ontzia eta gustura dago emaitzarekin. Etxean sortzen den material organikoa eta lorategiko belarrak eta adarrak ontzian sartu, eta konposta lortzen du.

Birziklatzarekin sentsibilizata dagoen herritarra da Hunberto Arostegi. Duela bi urte, beste urrats bat gehiago egin zuen: etxean, konposta egitea. "Lata asuntua aparte bidaltzen dugu, botilak aparte, papera aparte... material organikoa kenduz gero, basura-basurarako ez da hainbeste geratzen".

Sasietak 2003. urtean jarri zuen martxan etxeko konposta baina segurarra, beranduego hasi zen lehenengo aldian ez baitzuen aukerarik izan. "Nire aldameneko biek hartu zuten eta ni bi urtera sartu nintzen. Beti esaten dut, nire irakaslea, aldameneko Angelita Katarain izan dela".

Bakoitzak bere sekretu-txoak ditu eta Hunbertok, bereak kontatu dizkigu.

Lorategian dauka jarrita konposta ontzia. "Aireatutako lekuan jartzea egokiagoa ikusten dela uste dut". Gainerakoan, ez omen du sekretu handirik. "Hezetasuna kontrolatu behar da, eta asko mugitu. Gauza berdina botata, ezberdina ateratzen da. Batek zerrautsa bota eta oso gaizki ateratzen zaio. Mugitzeko, hasierako taldeari, birbiki bat eman zioten. Guri, aitzur txiki bat eman ziguten baina ez da egokia. Egokiena birbikia da. Angelitari kentzen diot birbikia. Eskatuta daukagu eta laster iritsiko omen dira. beste batzuei oso ondo... Nik uste dut sekretu handia dagoela nahastean".

Bitxikeria bat kontatu digu Hunbertok: "102 kospostatzailek eman zuten izena eta



Zer da konpostatzea?

Konposta lortzeko materia organikoa (adarrak, hostoak, janari-hondarrak...) eraldatzea da. Konposta materia organikoa naturalki deskonposatu ondoren lortzen da. Horretarako, mikroorganismoek (bakterioek, onddoek...) eta organismo txikiek (zizareek eta kakalardoek) beren lana egiten dute.

Materia organikoa konpost bihurtzeko konpostagailua erabili daiteke, mekanismorik eta motorrik erabili gabe eta mantentze-gasturik gabe.

Egunean sortzen den zaborraren %33 materia organikoa da eta birzikla daiteke. Ondoren, lurrera itzuliko da landare-entzako edo laboreentzako konpost moduan. Gainera, bide horri eutsiz, hondakin gutxiago iritsiko dira zabortegira edo balioa emateko plantetara.

Konpostatu ondoren, materia organikoaren bolumena %80 murrizten da, hau da, konpostagailuan sartutako materia organikoaren 100 kg-ko 20-25 kg konpost lortzen dira.

**Konposta materia organikoa
naturalki deskonposatzean
lortzen da. Horretarako,
mikroorganismoek eta
organismo txikiek beren lana
egiten dute.**

konposta aztertu ondoren, finalera 10 iritsi gainen. 10 finalisten konposten argazkiak jarri zituzten interneten eta nik neurea ezagutu nuen, nahiz eta izenik ez jarri. Konpostaren beraren usaina ere baloratu dutela uste dut".

Lehiaketan parte hartu dutenen konpostaren azterketa egin dute Frasieron eta emaitzen zain dago orain segurarra.

Zer bota?

"Konpostadorea jaso genuenean, hitzaldi bat izan genuen Sasietan. Guk horrelako lur beltza atera? Ezinezkoa, esaten genuen. Baina ateratzen da bai", dio Hunbertok. Gustura dago gainera emaitzararekin. "Neurtzerik izango banu ze bolumen bota dudan? Ikaragarri bota dut. Baina gero ez da hainbeste konpost ateratzen." dio Hunbertok.

Etxeko eta lorategiko material organikoa botatzen du. Ideia bat egiteko hona hemen zerrendatxo bat: "Etxean sortzen den material organiko guztia: arrautza azalak, kafe hautsa, tximiniko hautsa, ogia...". Horretaz gain, lorategiko kimaketa guztiak.

Hezetasun egokia

Hezetasunari eusteko inprimatu gabeko kartoia eta hostoak, orbela botatzen ditu. "Egunkari papera sartu liteke, tinta begetala erabiltzen duten egunkariak. Baina egunkariak birziklatzeko beste bide bat dagoenez, nik ez dut erabiltzen. Ez dut esperimenturik

ARANDIA GARAJEA
Autoen konponketa
N-1, z/g Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.
Promozioak, Eraikuntzak, Erreformak... 943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN



egin”, adierazi du Humberto Arostegik. Bigarren konposta ontzia eskatuta dauka eta esperimentuak egiten joango da pixkanaka.

Pixkanaka hustu

Behin konposta egindakoaan ere bada iritzi ezberdinik. Konposta pixkanaka ateratzen joaten da Humberto Arostegi. Batzuk, urtean behin, dena husten dute. Niretzat ez da egokia, dena

hustuz gero, zerotik hasten zara. Pusketa bat ateratzen baduzu hobe da niretzat. Ontziaren beheko partetik konposta atera eta gainean gelditzen dena behera joango da. Etengabe ari da lanean. Diputaziokoak etorri zirenean nire konpostaren datuak hartzera, bi egun lehenago belarra moztuta nengoen. Bero egiten zuen, ekaina bukaera zen. Termometroa hartu zuen, eta 50 ° markatzen zituen.

Beraz, edozer botatzen dela, laster hasiko da lanean. Konpostadorea martxan egon behar da beti. Hiru egun baino gehiago ez da komeni material organikorik bota gabe egotea, barruan dagoen elikadura katea ez eteteko”, azpimarratu du.

Behin konposta aterata, karretila batean uzten du lehortzen eta gero galbahea pasatzen dio. Lorategian erabiltzen dute konposta.

Geranio ederrak zituzten oraindik loran, Humbertori elkarriketa egin genionean.

Uste okerrak

Konposta ontziaren inguruan hainbat uste oker badagoela esan digu segurarrak. Batetik, usain txarraren ustea. “Baina ez du usainik botatzen”. Arratoiak inguruan ibiltzen ote direnarela ere esan izan da baina segurarraren esperientziatik, beraiei ez zaie halakorik gertatu.

Sariaz gozatu

Saria jaso duenetik jende ugari hurbildu zaio Humbertori konpostaz galdeka. Jendea sentsibilizatzeak aukera aprobetxatu behar dela dio.

Lehiaketa guztietan izaten da sariren bat eta segurarrak ere jaso du berea: mila euroko saria. Hori bai, barutzerako edo lorezaintzarako tresnak eskuratzeko, nekazalaturismoetan egonaldiak egiteko, edo lorezaintza azoketara bisitak egiteko... erabili beharko du.

Goierriin 600 konpostatzaile

2003an hasi zen Sasieta Mankomunitatea etxeko konpostajearekin. Gaur egun, 600 familiek egiten dute konposta etxean. Inor interesaturik egonez gero, Sasieta deitu behar du. Sasietatik aurreratu digutenez, 2010ean, otsaila edo martxo aldera, beste ikastaro bat egingo dute. Hori bai, konposta egiteko, “beharrezkoa da ontzia lurzoru naturalean jartzea, hau

da, ezin da garaje batean edo balkoian ipini. Beraz berdegune bat, baratza edo holako zerbait behar da”, dio Enrike Enparantza, Sasieta teknikiariak.

Gipuzkoako hainbat herritan, kalean material organikoa botatzeko edukiontzia jarri dute. Goierriin, horrelako asmorik ba ote den galdetu nahi izan diogu Enrike Enparantzari: “aurten Gipuzkoako zenbait herritan esperien-

tzia piloto bat egin da edukiontzi berri bat kalean ipiniz, marroia alegia. Bertara herritarrek etxeko hondakin organikoak botatzen dituzte. Ondoren material horrekin konposta egiten da. 2010ean esperientzi hori zabaltzen hasiko da Gipuzkoa guztira. Eta noski hemen Goierriin ere bai. Dena den oraindik ez dago diseinatuta nola egingo dugun edo nondik hasiko den eta noiz. Ziurraski 2-3 herritan hasiko gara gure ere frogak egiten”.



zurgingedia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurrira.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Bertako haragia baserritik zuzenean

686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa
galamendi@terra.es



Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)

KALITATE TURISTIKOAREN Q-A

Euskadin honezkeroko 267 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua, instalakuntzak eta gestioa zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Berezigarriak, klasifikazio ofiziarri erreparatu gabe, enpresa turistikoetan eskusiboki eta Kalitate arau batzuen barruan aplikatzen diren produktuaren zein zerbitzuaren eskakizunak jasotzen ditu. Azken batean, bezeroen asebetetzera eta dituen itxaropenen betetzera bermea da. Horrekin batera, exigentzia maila txikiagoa baina epe luzerako konpromisoa duen negozio txikienei bereziki zuzendutako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorrotasuna errekonozitzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da, bezeroaren zerbitzura.

Esther Facchin Esnal

Zarauzko Turismo Bulegoko kalitate arduraduna:

“Sistema bati jarraituz lan egiteak enpresaren gestioa hobetzen du”

- Zergatik egin duzue turismoaren sektorearekin lotutako sistema eta kalitate-programetako batzuen aldeko apustua? Turismo Bulegoko zerbitzua hobetzeko aukera paregabea zela iruditu zitzaigun.

- Zertifikatutako Kalitate Turistikoaren Q-a bezalako kalitate sistemak nolako abantailak ekarri dizkio zure erakundeari?

Zerbitzu profesionala eta kalitatea eskaintzen duen entitate ezagutua izatea.

- Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaietan? Eta azpiegitura kontuetan?

Ezarpenak gure funtzionamendua analizatzeko eta hobetzeko datu gehiago eman dizkigu.

Orain sistematikoki egiten dugu lana, ezarri ditugun prozedurei esker.

- Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?

Eskuorriak eskaerara egokitu ditugu, seinastapena hobetu dugu eta sektoreko enprekin

dugun harremana hobetu dugu.

- Zer esango zenieke turismo arloko profesionali Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenarako animatu daitezen?

Sistema bati jarraituz lan egiteak enpresaren gestioa hobetzen du. Bestalde, kalitate sistemari esker pertsonalaren inplikazioa suspertzen da eta bezeroak asebetetzea lortzen da. Lana da, baina merezi du!

- Beste enpresari batzuei kalitate sistema zertifikatuarekin lan egiteko gomendatuko zenieke?

Noski! Berez, sektoreko enpresak bultzatzen ari gara Jardunbide Egokien Eskuliburua lantzerako Kalitate Turistikoaren Q-a landu aurretik. Momentu honetan Zarauzko 33 enpresa ari dira.

- Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorrago ahalbidetzen du?

Zalantzarik gabe! Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria ezagutzea da eta enpresaren bereiztasuna nabarmentzen du. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren egiten

ari den kanpainari esker gero eta ezagunagoa izango da.

- Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?

Prozedurak idazteko lana funtsezkoa izan da. Barruko lana suspertzeko sortutako dinamikak eta gure bezeroen asebetetzea neurtzeak garrantzi handia izan dute gure zerbitzua hobetzeko. Beste arlo batean ere aurrerapen handia nabaritu dugu, hau da, biltegiaren kudeaketan.

- Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?

Aldaketak baino, pertsonalaren formakuntza jarraitzea eta iradokizunak kontuan hartzea ezinbestekoak dira Turismo Bulegoko kudeaketa hobetzeko eta bide honetatik jarraitzeko asmoa dugu. Bestalde, bulegoko hainbat arlotan 5S sistema ezartzen ari gara.



CALIDAD TURISTICA



Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorrago izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

• **Ekintza Onen programa.** Helburua enpresarioen “profesionalizazioa” eta jomuga-konizentzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude.

• **Kalitate Turistikoaren Q programa.** Bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 267 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.

• **EFQM bikaintasunaren eredu programa.** Eredu honetan parte hartzen diharduten 17 establezimendu daude Euskadin.

Jarri kalitate turistikoaren Q-a zure establezimenduan
94 607 75 86
94 404 74 70
www.turismoa.euskadi.net



‘Haur etorkinen euskara: eskolaren eta inguru euskaldunaren eragina’

Eider Lardizabal segurarrak, Segurako herri eskolan egindako ikerketa aurkeztu du

Segurako Laiotz herri eskolan sei haur etorkin dabilta, 5 eta 11 urte bitartekoak. Maroko, Portugal eta Bulgariatik etorritakoak dira. Beraien euskara maila neurtu eta ondorioak atera ditu Eider Lardizabal segurarrak: D ereduan eskolatu eta inguru euskalduna izanda, haur etorkinek euskararekin jabetzeko inongo arazorik ez dutela dio.

Euskal Filologia ikasketak egiten ari da Eider Lardizabal segurarra. Lizentziatzeko, ikasgai baten falta da. Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintzen duen Lankidetz Beka bati esker, Ibon Manterola irakaslearekin batera, ‘Haur etorkinen euskara: eskolaren eta inguru euskaldunaren eragina’ ikerketa burutu dute Segurako Laiotz herri eskolan. Azaroaren 20an, Bilbon, Euskaltzaindiak antolatutako jardunaldietan aurkeztu zituzten emaitzak. Ondorengo lerrootan, laburpentxo bat egin digu segura-

rrak GOIERRITARRA aldizkariaren irakurleentzat.

Euskara eta etorkinak gaiak lotu dituzu ikerketan. Zergatik aukeratu duzue gai hori?

Lankidetz Beka eskatu nuen unibertsitatean. Karreraren azken urtean zaudenean, irakasle batekin, ikertzen segitzeko aukera ematen dizue. Irakasleak animatzeko esan zidan. Esaten zidan, haur etorkinen gai hau batere ikeritu gabe zegoela eta zerbait egin beharra dagoela. Izan ere, azkenean, konturatu gabe, haur etorkinak asko

dira. Datuek erakusten dute, azkeneko bi urtetan %34ko hazkunde eman dela. Asko da. 200.000 etorkin daude denera. Zerbait egin behar dagoela, euskara bezalako hizkuntza hain minorizatua izanda, ikusi beharra dagoela zer gertatzen den. Haurren kasuan, adibidez, nola jasotzen duten euskara.

Zergatik aukeratu duzue Segura?

Eskolatze eta testuinguru soziolinguistiko jakin batean egin nahi izan dugu ikerketa. Batetik, D ereduan eskolatzeari, Seguran ez daukate beste aukerarik, Seguran D ereduan ikasi beharra daukate. Eta inguru soziolinguistiko oso euskalduna izatea. Ikusteko, inguru euskalduna izateak zein eragin daukan haur etorkin hauengan.

Zein adinetako haurrak hartu dituzue?

Denek adin ezberdina zeukaten: 5 urteko bat, 7 urteko bi, 8ko bat, 9ko bat eta 11ko bat. Kontuan hartu behar da, denbora ezberdina daramatela hemen. Batzuk 2 urte daramate, beste batzuk urte eta erdi...

Zertan oinarritu duzue ikerketa?

Lankidetzara Beka hori, datu bilketa bat izan zen azken finean. Seguran sei haur etorkin daude eta haiek grabatu nituen ipuin bat kontatzen. 'Mattin zaku'-ren ipuina. Nik lehenengo ipuina kontatzen nien, marrazkiak erakutsiz, serieak ilaran jarrita. Gero, beraietako batek besteari ipuina kontatu behar zion,

marrazkiak ikusiz. Txandaka denak pasatu arte.

Zehazki, zer neurtu nahi izan duzue?

Gure helburua zen ikustea, ikasle etorkinen euskara nola-koa zen; beraien ikaskuntza aztertzea. Gure kasuan, erabileraren bezala, ipuin kontaketa bat hartu dugu.

Grabaketak egin genituen eta aztertu genituen puntuak hauek izan ziren.

Batetik, autonomia: kontaketarako zein autonomia zeukaten. Hau da, ea kapaz ziren beraiek bakarrik ipuin bat hasi eta bukatzeko marrazkien laguntzarekin. Kontaketa autonomia aztertuta, denak dira kapazak, hasieratik bukaerara, inongo laguntzarik gabe, kontatzeko, bost urtekoa izan ezik. Laguntza behar du, baina ez etorkina delako, bost urtekoa delako baizik.

Bestea, ipuin egitura ea ondo jarraitzen zuten: guk egitura narratiboa jarraitu dugu. Bost ataleko egitura bat: hasierako egoera, desoreka aldia, ekintzen garapena, oreka aldia eta amaierako egoera. Zati horiek ondo betetzen ote zituzten. Egitura narratiboari dagokionean,

bost ataleko egitura hori, gutxi gorabehera denek jarraitzen dute. Bost urteko honi hasierako egoera falta zitzaien, baina txikia da.

Eta hirugarrenik, ergatibo kasua: nork kasua ondo egiten ote zuten. Ergatibo kasuaren markaketan, diferentziak bazeuden, baina, sei hauetatik bi haur bazeuden, euskaldun elebakarrak bezalaxe ondo betetzen dituenak ergatiboak. Beste bik, akatsen bat edo beste egiten dute, baina orokorrean oso ondo. Beste bi badaude orokorrean, akats gehixeago egiten dituztenak. Ibon Manterolak Zumaiako haur batzuk grabatuta zituen, etxetik euskaldunak zirenak. Ipuin bera kontatu arazi zien eta lan hauxe bera egin zuen. Ikusten zena zen, Zumaian, etxetik euskaldunak zirenak baino emaitza hobekak eman dituztela askotan hauek. Ergatiboa euskaldun berri guztiei zaila egiten zaie, baina hauek inongo arazorik gabe ari dira jasotzen.

Zein ondorio orokor atera duzue?

Lortu dugun emaitza izan da: ikasle etorkinek bertakoen antzeko euskara gaitasunak, trebetasunak lortzen dituztela.

Euskaraz eskolatzeak eta eskolaz kanpora euskaraz hitz egiteak, kalean euskaraz hitz egitea nabaritzen dela euskararen ikaskuntzan, baita haur atzerritar hauengan ere bai. Euskarak bai, baina inguruak izugarritzko eragina dauka. Ume hauek herrian integartzeko, lagunak egiteko euskara behar dute. Euskara ikaste-ko beharra daukate. Marokotarrak eta bulgariarrak, hika egiten dute elkarrekin. Segurarrak bezalaxe hitz egiten dute.

Segura herri euskalduna da. Baina urrutiegi joan gabe, errealitatea guztiz ezberdina da.

Kontuan hartu behar da, hau ikerketa txiki-txiki bat dela, puntuala, 6 umerekin egindakoa. Esaten dute, etorkinen %71 Bilbo Handian, Donostian eta Gasteizen bizi dela. Segurako hau, %29 horren barruan sartuko litzateke. Gainera ume horien gehienak, Hego Euskal Herrian, A ereduan eskolatzaren omen dira. Hemengoak D ereduak dira. Beraz, ondorio potolorik ezin dugu atera. Abiatu egin gara.

Beraz, aurrera begira ere badago zer eginik.

Interesgarria izango litzateke, beste gai batzuk aztertzea. Adibidez, ea lehenengo hizkuntzarekin zer gertatzen den. Euskara jaso duten eran beraien ama hizkuntzarekin zer gertatzen ote den. Aparte uzten ote duten, edo zailtasunak ote dituzten, hizkuntzekiko jarrerak positiboak edo negatiboak diren...

Segurako ikasle etorkinek bertakoen antzeko euskara gaitasunak, trebetasunak lortu dituzte.

Olagi Urte guztian zabalik
Sagardotegia Eguneroko menua
Jatetxea Karta Sagardotegiko menua
© 943 88 77 26 ALTZAGA



Arkupe
ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

A S E P L A N S . L .
A H O L K U L A R I T Z A - E N P R E S A K

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MEREKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

txekin
www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturrizotz, z/g

Beasain

Zinea euskaraz

Abenduak 19, larunbata:

17:00etan: 'Animal Channel', haur zinea.

19:30ean: 'Berri ona'.

Abenduak 26, larunbata:

17:00etan: 'Cristobal Molon', haur zinea.

Abenduak 19, larunbata:

19:30ean: 'Goazen'.

Goieniz zine kluba

Abenduak 17, osteguna:

21:00etan: 'Déjame entrar. Lat den ratte coma in Raed', filma. Usurbe Antzokian.

Abenduak 29, asteartea:

21:00etan: Laburmetraia emanaldia. Usurbe Antzokian.

Abenduak 30, asteazkena:

21:00etan: Laburmetraia emanaldia. Usurbe Antzokian.

Lazkao

Egunkariaren aldeko ekitaldiak

Abenduak 17, osteguna:

18:30ean: Hitzaldia: Epaiketa hasieraren berri zuzenean jasotzeko aukera izango da Txema Auzmendi auzipetuaren eta Joanmari Larrarteren eskutik, Gerriko txokoan.

Abenduak 19, larunbata:

12:30ean: 'Egunkaria libre!' kantu jira, herriko plazatik abiatuta.

Arratsaldean: Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatuta da.

Abenduak 20, igandea:

11:30ean: Herriko plazan, 'Egunkaria libre!' materiala saltzeko mahaia jarriko da herriko plazan.

Goierri

Liburu azokak, Ataunen, Lazkaon eta Ordizian

Aurreko asteburuan Seguran eta Beasainen izan ziren beazala, asteburu honetan, Ataunen, Lazkaon eta Ordizian Euskal Liburua eta disko azokak izango dira. Segura, Atau, Lazkao eta Ordiziak, elkarlanean antolatzen dute azoka. Jarraian duzue herriz herriko egitaraua:

Ataun, San Gregorioko Elkargunean:

Abenduak 18, ostirala:

19:00etan: Irekiera, aurkezpenekin eta poesia errezitaldiarekin. Gero, mondeju jana (txartelak salgai).

Abenduak 19, larunbata:

Arratsaldean, herritarren txokoa. 'BiZi!' diskoaren eta Ataungo irakaskuntzaren historia biltzen duen liburuaren aurkezpenak.

Abenduak 20, igandea:

Umeentzako jolasak, marrazkiak eta ipuin kontalaria. Lazkao Txiki musika eskolako ikasleen saioa.

Lazkao:

Abenduak 18, ostirala:

17:00etan: Irekiera ekitaldia, Lazkao Txiki Musika eskolako ikasleen saioarekin.

Abenduak 19, larunbata:

Eguerdian, kantu-jira plazan. Arratsaldean, haur eta helduentzako jolasak eta zinta-karrera.

Abenduak 20, igandea:

Krosa eta Gabonetako Euskal Kantuen IV. lehiaketa, Arerian.

Ordizia:

Santa Maria kaleko, 31. zenbakian, Urdin tabernaren ondoran.

Abenduak 18, ostirala:

18:00etan, irekiera, Jakintza eta Urdaneta dantza taldeekin.

Abenduak 19, larunbata:

Patxi Zubizarreta idazlearen aurkezpena eta kale animazioa.

Abenduak 20, igandea:

Arrate Leunda ipuin kontalaria.



ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorrnsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

Ikaskide akademia
Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbialde plaza 7- 943 027 792
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak
HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta Frantsesa
UNIBERTSITATE MAILA: Goierriko Unibertsitatea
MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA
LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurmena, kalkulua, ikasketa teknikak

Aurrera egin



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



 kutxa



ADEGI



CAMARA DE GIPUZKOA
KAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA
CAMARA DE GIPUZKOA



Ayuntamiento de San Sebastián



gipuzkoa **aurrera**

Aurrera egin, elkarrekin.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-pribatutik elkarlanean ari gara,
indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gainetik dagoelako.

Beasain

Abenduko ekintzak

Abenduak 17, osteguna:

20:00etan: Kontzertua: Musika Eskolako Banda, ikasleak, abesbatza, korala eta akordeoi orkestra. Andre Mari Zeruruaren parrokian.

Abenduaren 18tik urtarrilaren 3ra:

Goierriko artisten VIII. Topaketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan.

Abenduak 20, igandea:

19:30etan: Loinatz Abesbatzaren kontzertua, Andre Mari Zeruruaren parrokian.

Abenduak 23, asteazkena:

19:30etan: IV. Gospel zikloa: The Upper Room Gospel. Udal Batzar aretoan.

Abenduak 24, osteguna:

12:00etan: Ikastetxeen bilkura, Gernika pasealekuko pilotalekuan.

17:00etan: Gabon eskea, Igartzako errotatik hasita.

Abenduak 25, ostirala:

12:00etan: Udal Txistulari Bandaren kalejira.

Abenduak 26, larunbata:

22:15ean: Dantza jaialdia Ostadar taldearekin, Usurbe Antzokian.

Abenduaren 28tik 30era:

Haur parkea, Antzazar kiroldegian.

Abenduak 29, asteartea:

19:00etan: Aitziber Saldiasen 'Quenna' liburuaren aurkezpena, Udal Batzar Aretoan.

Abenduak 31, osteguna:

12:00etan: San Silvestre krosa, Beti Bizi elkarteak antolatuta.

Idiazabal

Antzerkia, bertsoak eta puzgarriak

Abenduak 22, asteartea:

17:30etan: Tenderete taldearen 'Gazaporen istorioak' saioa, Guraso Elkartearen. Antolatzailea: Liburutegia.

Abenduak 23, asteazkena:

10:00etan: Xurdir antzerki taldearen 'Xurdir gabonetan' antzezlan, Guraso Elkartearen. Antolatzailea: Aita Iparragirre Herri Eskola.

Abenduak 30, asteazkena:

11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara: Haurrentzako puzgarriak, Igarondo pilotalekuan. Antolatzailea: Kultura komisioa.

22:00etan: Bertso jaialdia, Guraso elkartearen. Antolatzailea: Izalgo Bertso taldea.

Ordizia

Pirritx, Porrotx eta MariMotots

Abenduaren 27an, Goierriko ikastolek Urruñako eta Ziburuko ikastolen aldeko jaialdia antolatu dute aurten ere. Ohi bezala, Pirritx, Porrotx eta MariMotsek, azken ikuskizuna aurkeztuko dute: 'Irrien lagunak'. Abenduaren 17tik aurrera jarriko dira txartelak salgai, 6 eurotan. Informazio gehiago, Goierrihartxo gehigarrian.

Zortzi finalisten saioa

Argi Berri elkarteak antolaturik, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalean parte hartu duten zortzi bertsolarien saioa izango da abenduaren 26an, Majori kiroldegian, arratsaldeko 6etan. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Unai Iturriaga, Aitor Sarriegi eta Sustrai Colina arituko dira bertsotan.

Zatoz Zientziaren aurpegi alaiaren bila!

gizarte ekintza

hezkuntza

www.miramon.org

943 01 24 78

DONOSTIA

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa



Gabon zoriontsuak opa dixkizuegu gustioi!

Aranburu

OINETAKOAK

943 880 127 Kale Nagusia, 36 BEASAIN

AZURMENDI HARATEGIA

Victor Mendizabal, 2

943 88 47 65

ORDIZIA

San Inazio, 6

943 16 16 74 - 943 16 13 28

BEASAIN



Eguberri zoriontsuak guztioi!

La Goleta
Ondo
pasa
festak!


BEASAIN




Basakana
Gloria eta
Pintxo Gokoa
943 88 20 23
Iturriotz, 11- Beasain



ETXE BE
TABERNA
Zaldizurreta kalea
BEASAIN



Kuluska Bar
1.984
1.989
1.994
1.999
2.004
2.009
25 urte
Araxa kalea, 1 - Beasain. Tf. 943 889 888



Edaritegia **Jar** *Kafetegia*
☎ 943 88 86 81
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

PUB
ASTI
Zaldizurreta kalea ☎ 943 88 45 06 BEASAIN



ILINTZA
BEASAIN



ARRANO
TABERNA
Pintxo eta ogitartekoak
Jaietan ere preso eta iheslariak gogoan
Nagusia, 12 BEASAIN



ILARGI Pintxoak
Ogitartekoak
Razioak
Nafarroa etorbidea, 3
BEASAIN
TABERNA
ONDO PASA FESTAKU



Ordizia

Eguberrietako ekitaldiak

Abenduak 18, ostirala:

18:00etan: Jubilatuen Egoitzan Eguberrietako jaialdia, Umore Ona Abesbatza, poesiak, zozketak...

19:00etan: Kirol-sarien emanaldi-ekitaldia, Barrenan.

Abenduak 19, larunbata:

19:00etan: Santa Ana abesbatzaren kontzertua elizan.

Abenduak 22, asteartea:

19:00etan: Goiztiri AEK-k antolatutako Gabonetako postal eta idazlan lehiaketako sari banaketa Barrena Kultur Etxean.

19:00etan: Musika Eskolako ikasleak aterako dira.

Abenduak 23, asteazkena:

10:30ean: 'D'elikatz Bizi 2009 Saria'-ren banaketa.

19:00etan: 'Gabonetako postalen Lehiaketa'-ko lan guztien erakusketa Barrena Kultur Etxean.

20:00etan: Oroith eta Oroith txikiren kontzertua elizan.

Abenduak 24, osteguna:

Eguberrietako abesbatzak kaleratuko dira.

18:00etan: Olentzero etorriko da dantzari eta trikitilariak lagun dituela.

Abenduak 25, ostirala:

10:30ean: Diana 'Beti-Argi' musika bandaren eskutik.

13:00etan: Eguberrietako kontzertua 'Beti-Argi' musika bandaren eskutik Plaza Nagusian.

Abenduak 26, larunbata:

11:30ean: Ordiziako kasko historikoaren bisita gidatua.

18:00etan: Majori Kiroldengan Bertso jaialdia. (EHko txapelketako finalistak). Antolatzailea: Argi Berri Elkarte.

Abenduak 27, igandea:

16:00etan eta 18:30ean: Pirritx, Porrotx eta MariMotots pailazoekin 'Irrien lagunak' ikuskizuna Majori kiroldengan.

Abenduak 28, astelehena:

11:00etan: Ipuin kontaketa Mertxe Aizpuruarekin, Barrena Kultur Etxeko Liburutegian.

17:00etan: Gabonetako VI. Saskibalo Lehiaketaren finalak, Majori Kiroldengan.

18:00etan: Jubilatuen Egoitzan, 'Aiton-amona eta bere biloben eguna'. Monda Lironda pailazoak 'Zorionak!!' lanarekin.

Abenduak 29, asteartea:

10:00etan: I. Alebin mailako Futbol torneoa, Altamiran.

10:00etan: 3x3 Saskibalo Torneo Alebin eskolarra, Majorin.

10:00etan: 'Eguberrietako Nazioarteko XXVII. Sari Nagusia', Ordizia K.E. Igeriketa sailak antolatuta, Majorin.

11:00etan: Txotxongiloak 'Ipuin lapurrak', Barrenan.

17:30ean: 'High school musical' filma, Herri Antzokian.

18:00etan: 'Eguberrietako Nazioarteko XXVII. Sari Nagusia.

Abenduak 30, asteazkena: azoka berezia:

9:00etan: Kaponi, Antzar eta indioilarren XXIII. Erakusketa Beti Alai Pilotalekuan; errezil sagar, fruitu, fruitu lehorren erakusketak Garagartza Plazan. Orein, pottoka, asto, bigantxa... erakusketa Beti Alai kanpoko pilotalekuan.

11:00etan: Ipuin kontaketa, 'Kontu zaharrak eta kontu berriak' Pello Añorgarekin, Udal Liburutegian.

18:00etan: Jubilatuen egoitzan, Urte bukaerako jaialdia.

Abenduak 31, osteguna:

11:00etan: D'Elikatuz-en 'Altxorraren bila' jokoa.

17:00etan: XXXIV. San Silbestre krosa-Jose Manuel Caballero VII. Memoriala'. Proba herrikoia, 18:30etan hasiko da.

19:30ean: Ohikoa den 'Kattalin' doinua joz, Beti Argi Banda eta Laguntasuna errondaila kaleratuko dira.

Urtarrilak 2, larunbata:

11:30ean: Ordiziako kasko historikoaren bisita gidatua.

Urtarrilak 2, 3 eta 4:

11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara: Haur Parkea, Plaza nagusian.

Urtarrilak 5, asteartea:

12:00etan: 'Whinkyrenen zaldia' filmaren emanaldia haurrentzat, Herri Antzokian. Saio honetan ohiko errege-errosko eta pizzen zozketa egingo da.

19:00etan: Erregeen kabalgata.

Urtarrilak 6, asteazkena:

10:30ean: Ordiziako Txistularien Diana.

11:00etan: Santa Ana abesbatzak lagundutako Meza Nagusia elizan.

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate


- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.

AUZOKI

Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599


Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

kutxa



Ordiziako Tabernarien partetik

Eguberri zoriontsuak guztioi!





Lazkaotarrak 1954 inguruan

Ixabel Agirrek utzi digun argazkia Lazkaon Manuelenea tabernaren aurrean ateratakoa da duela 55 urte inguru.

Zutik ezkerretik eskuinera:

Manuel Murua, Ixabel Agirre, Martin Naldaiz, Martin Barandiaran eta Jesus Naldaiz.

Erdiko ilaran: Xabin Mingo, German Barandiaran, Joxe Begiristain eta ezezaguna

Aurreko biak: Sekundino Urteaga eta haurra ezezaguna

 **euler**
mota guztietako uretako bonbak


Salmenta
Konponketa
Alokairua



T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11



Orain Zaldibian



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA


GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

 **GOENAGA**



Eguberri zoriontsuak denoi !

AHOLKULARITZA OROKORRA:

laborala,
soziala
fiskala
merkantila
kontablea.

☎ 943 16 00 65
Faxa: 943 16 03 59
goenaga@goenaga.com
J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

GESTORIA:

ibilgailuak
garraioak
berrikuntzak
eskriturak.

ARGI EWE
OPTIKA ME

zorionak urteberri on

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10
www.argioptika.com

PRADA D&G VERSACE BURBERRY



gabonetarako
opari paregabeak

reklama

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



9909

EZKONGAIENTZAKO ESKAINZA BEREZIA

Prezioak, arreta eta aukerarik onenak

NORA JOAN AUKERATU ZUK

eta gainontzekoa
egingo dugu guk

T 943 80 53 11
abio@abio.es




%15
-eko
BEHERAPENA



KARIBEA

%10
-eko
BEHERAPENA



MUNDUKO TXOKOAK



VIAJES
ABIO

BIDAIAK
1999 2009